

KONTINGENTZIA

epuertobilbao plataforma telematikoak huts egin du (www.epuertobilbao.com).

ARAZOA

Deskarga Aitorpen Laburrak eta Itsas Kargako Agiriak ezin dira epuertobilbao plataformaren bidez Aduanara transmititu.

AURKIBIDEA

- (1) **SARRERA** (2. orrialdea/8)
- (2) **KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA** (3. orrialdea/1)
- (3) **ADUANA-AGENTEEK JARDUTEKO MODUA** (4. orrialdea/1)
- (4) **ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZENTROAK (EAZ) JARDUTEKO MODUA** (6. orrialdea/1)
- (5) **ADUANAK JARDUTEKO MODUA** (7. orrialdea/1)

(1) SARRERA

1. epuertobilbao plataformaren bidez kudeatutako informazio-trukaketa guztientzako kontingentzia-prozedura aktibatuko da, sistema erabilgarri ez dagoela hauteman eta 15 minutu pasatu ondoren.
2. epuertobilbao plataformaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak (EAZ) aktibatuko du prozedura, epuertobilbaoren erabiltzaile guztiei mezu bat bidalita. Mezuan adieraziko du gertaera zergatik izan den, zer-nolako gertaera den eta gertaerak aurreikusitako iraupena.
3. Kasu jakina aztertzean, eta larrialdia zer-nolakoa den kontuan hartuta, Portuko Agintaritzak eta Aduanak larrialdietarako prozedura aktibatuko dute, eta prozedura zer-nolakoa izango den erabakiko dute.
 - (a) OROKORRA
 - (b) SALBUESPENEZKOA
4. Operadoreek EAzi kontsultatuko diote nola jardun behar duten:
 - (a) **EAzen telefonoa, 902 10 16 14**, eskuragarri egongo da gertakizunari buruzko edozein kontsulta egiteko edo informazio eskatzeko.
 - (b) Sistema erabilgarri ez dagoen denbora-tartean, hirugarren kontaktu-bide bat prestatuko da **608 794 425 telefono mugikorraren bidez (gertakarietan soilik funtzionatuko du)**.
5. Itsas Aduanaren administratzaileak Zergazaintzari jakinaraziko dio larrialdietarako prozedura martxan jarri dela.
6. Gertaera konpondu eta gero, EAZek posta elektronikoko bat bidaliko du, zerbitzua berriz ezarri dela jakinarazteko.

(2) KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA

Deskarga Aitorpen Laburrak eta Itsas Kargako Agiriak kudeatzeko Kontingentzia-prozedura aktibatzen duen jakinarazpena jaso ondoren, honela jokatuko dute:

(a) Deskarga Aitorpen Laburra k

- ✓ Portuko Agintaritzak Aduanari gertakizunaren berri emateak berekin dakar itsasontziei deskargatzeko baimena ematea. **Deskargatzeko baimena** eskuratzeko beharrezkoa da EAZen Deskarga Aitorpen Laburra paperezko euskarrian aurkeztea.
- ✓ Larrialdietarako prozedura jardunean dagoenean, portuan sartzen diren itsasontzien **aktibazioak** (itsasontzi horien Aitorpen Laburrak gertaera izan aurretik Aduanaren sistemara bidalita egon behar dira) Bilboko Aduanak izapidetuko ditu, EAZek aurretik jakinarazi ondoren.
- ✓ Deskarga Aitorpen Laburrak paperezko euskarrian eskura eman beharko ditu Erabiltzaileentzako Arreta Zentroan (EAZ), Bilbon, Campo Volantín pasealekua 37n.

Hauek aurkeztuko dira: **jatorrizko agiria sinatuta eta zigilatuta**, Aduanara bidaltzeko, eta **kopia bat EAZentzat**. Kopia osagarriak aurkez daitezke, eta kopia horiek kontsignatarioari itzuliko zaizkio, Portuko Agintaritzak jaso dituen datarekin eta orduarekin zigilatuta.

- ✓ Epuertobilbao plataforma funtzionatzen hasten denean, Deskarga Aitorpen Laburrak elektronikoki transmitituko dira ohiko sistemaren bidez.

(b) Itsas Karga Agiriak

- ✓ **Kargatzeko baimena** lortzeko **Zergazaintzari** karga-zerrenda emango zaio paperezko euskarrian, hala dagokionean, salgai bakoitzaren irteera babesten duten dokumentuekin batera.
- ✓ epuertobilbao plataforma funtzionatzen hasten denean, Itsas Kargako Agiriak elektronikoki transmitituko dira ohiko sistemaren bidez.

Oharrak

- (a) Larrialdietarako prozedura bat denez, komeni da **aurretik** EAZi **telefono bidezko kontsulta egitea** (902 10 16 14). EAZek, kasu jakin bakoitza berriz aztertzean eta gertakizuna zer-nolakoa den kontuan hartuta, beharrezko dokumentazioa paperezko euskarrian aurkeztea eskatuko du, edo aholkatuko du aurkezpen hori atzeratzea zerbitzua berriz ere martxan jarri arte.

(3) ADUANA-AGENTEEK JARDUTEKO MODUA

Deskarga Aitorpen Laburretarako eta Itsas Kargako Agirietarako kontingentzia-prozedura aktibatu

ondoren, aduana-agenteeek EAzi kontsultatuko diote gertaera zer-nolakoa den, zer prozedurari jarraitu behar dioten jakiteko.

- (a) Orokorra
- (b) Salbuespenezkoa

(a) Prozedura orokorra

1. Inportazioa

(a) Erkidegokoa ez den salgaia

Aduana-agenteeek Aduanan aurkeztuko dituzte paperezko euskarrian aduanaren esparrutik presaz atera behar duten salgaien administrazio-dokumentu bakarrak.

Jakinarazpena Aduanaren bulegoetan egingo da (Barroeta Aldamar, 1), eta horretarako, ezinbestekoa izango da EAzetik bidalitako Deskarga Aitorpen Laburra paperezko euskarrian jasotzea.

Bidalitako salgaiak esparrutik ateratzeko, Zergazaintzara administrazio-dokumentu bakarraren 9. alearen kopia bat eman beharko da.

Bilboko Portuaren esparrutik kanpo bukatuko den Iraganbide-dokumentu batek babestuta etorri diren salgaiak ateratzeko, iraganbidearen agiri laguntzailea eraman beharko da Zergazaintzara.

(b) Erkidegoko salgaia

b.1) Ohiko zerbitzuak

Aitorpen Laburrean "C" estatusa adierazi zaion Erkidegoko salgai orok irteteko baimena izango du.

b.2) Ez-ohiko zerbitzuak

Salgai horiek aduanaren esparrutik ateratzeko, hauek eman beharko dira: Salgaiak Erkidegokoak direla egiaztatu ondoren, Aduanak igorritako baimena eman beharko da Zergazaintzan.

2. Esportazioa

Larrialdietarako prozedura abian dagoen bitartean, administrazio-dokumentu bakarrak ohiko moduan aurkeztuko dira.

(b) Salbuespenezko prozedura

1. Inportazioa

Eskuarki, datatze-agiriak elektronikoki transmitituko dira.

2. Esportazioa

Larrialdietarako prozedura abian dagoen bitartean, administrazio-dokumentu bakarrak ohiko bidetik aurkeztuko dira.

(4) ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZENTROAK (EAZ) JARDUTEKO MODUA

Deskarga Aitorpen Laburrak eta Itsas Kargako Agiriak kudeatzeko Kontingentzia-prozedura aktibatu ondoren, Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak (EAZ) honela jokatuko du:

- (1) Paperezko euskarrian jasotako Deskarga Aitorpen Laburrak eta Itsas Kargako Agiriak jasoko ditu, eta lehen baliozkotzearen ondoren, dokumentu horiek jaso dituela erregistratuko du, dokumentuak aurkezteko **data eta ordua** adieraziz.
- (2) Dokumentu **urgenteenak** hautatuko ditu.
- (3) Aduanara (Berroeta Adamar, 1) bidaliko ditu hautatutako dokumentuak nahiz Aduanak eskatzen duen oro.
- (4) Zergazaintzari hautatutako Aitorpen Laburren kopiak emango dizkio.

(5) ADUANAK JARDUTEKO MODUA

Deskarga Aitorpen Laburrak eta Itsas Kargako Agiriak kudeatzeko Kontingentzia-prozedura aktibatu ondoren, Aduanak (EAZ) honela jokatuko du:

- (a) Itsas Aduanaren administratzaileak bulegoko buruari jakinaraziko dio eta dagokion sailari dagozkion **aktibazioak** egiteko ardura emango dio, jaso diren Deskarga Aitorpen Laburren (Aitorpen horien itsasontziak portuan kontingentzia izan den bitartean sartu direnak dira) datatze-dokumentuak elektronikoki transmititzeko.
- (b) Itsas Aduanaren administratzaileak Zergazaintzari jakinaraziko dio kontingentzia-prozedura martxan jarri dela.
- (c) Gertaera zer-nolakoa den kontuan hartuta, prozedura hauetako bati jarraituko dio:

- (a) Orokorra
- (b) Salbuespenezkoa

(a) **Prozedura orokorra**

1. Inportazioa/Sarrera

(a) Erkidegokoa ez den salgaia

Aduana-agenteeek Aduanan aurkeztuko dituzte paperezko euskarrian aduanaren esparrutik presaz atera behar duten salgaien administrazio-dokumentu bakarrak.

Jakinarazpena Aduanaren bulegoetan egingo da (Barroeta Aldamar, 1), eta horretarako, ezinbestekoa izango da EAZetik bidalitako Deskarga Aitorpen Laburra paperezko euskarrian jasotzea.

Aduanako administratzaileak erabakiko du grabatu beharreko dokumentuen lehentasun-ordena:

1. Salgai galkorrak
2. Produktu arriskutsuak
3. Beste larrialdi-egoera batzuk

Bidalitako salgaiak aduanaren esparrutik ateratzeko, Zergazaintzara administrazio-dokumentu bakarraren 9. alearen kopia bat eman beharko da.

Bilboko Portuaren esparrutik kanpo bukatuko den Iraganbide-dokumentu batek babestuta etorri diren salgaiak ateratzeko, iraganbidearen agiri laguntzailea eraman beharko da Zergazaintzara.

(b) Erkidegoko salgaia

b.1) Ohiko zerbitzuak

Aitorpen Laburrean “C” estatusa adierazi zaion Erkidegoko salgai orok irteteko baimena izango du.

b.2) Ez-ohiko zerbitzuak

Aduanaren esparrutik ateratzeko, Aduanak Zergazaintzara igorritako baimena aurkeztu beharko da, salgaiak Erkidegokoak direla egiaztatu ondoren.

2. Esportazioa/Irteera

Larrialdietarako prozedura abian dagoen bitartean, administrazio-dokumentu bakarrak ohiko bidetik aurkeztuko dira.

(b) Salbuespenezko prozedura

1. Inportazioa

Aduanak paperean aurkeztutako Aitorpen Laburrak grabatuko ditu, Portuko Agintaritzak emandako zenbakiak esleituz.

Eskuarki, datatze-agiriak elektronikoki transmitituko dira.

2. Esportazioa

Larrialdietarako prozedura abian dagoen bitartean, administrazio-dokumentu bakarrak ohiko bidetik aurkeztuko dira.